


Aretxabaleta,
1992ko martxoak 26

Aretxagazeta



Mardotarrak,
kirolzaleen zerbitzuan

• *Elkarrizketa:*
Mardotarrak

• *Atxabaltartua:*
J. William Nelson

• *Amaia*
Gaztañaga,
korrikalari gaztea



Egun batean, bizitzako jokaerari buruz gure Elkar-tean izan genuen solasaldian honako ipuin hau kontatu zigun senide batek, eta hemen eskeintzen dizuet.

Ixiltasunetik mezu bat

Aspaldi, Nazareteko Jesusek kontatu zuen "Seme galduaren" edo hobetoesan "Aita Onaren" parabolaren antza du, izan ere arazo hau, non-bait, betikoa izan da eta izango da.

Bere etxetik ihes eginik -zorion egarriak eraginda noski- dirua, izen ona eta osasuna bera ere galdu zuen gazte bat omen zen. Hain bakarrik eta errukarri ikusi zuenean bere burua pentsamentu hau sortu zitzaion: eta, nire etxera itzuliko banintz? Aurrena, onartuko nauten edo ez jakin beharko dut. Zer egin?. Eskutitz bat idatziko

diet proposamen honekin: Barkatu eta onartuko nauten seinale bezala etxe aurreko zuhaitzaren adarrean zapi zuria ikusten badut hurrengo geltokian jeitsi eta etxeratuko naiz, bestela aurrera jarraituko dut nire bidea.

Pentsa eta egin, zenbat zalantza eta beldur bere baitan (etxean bera hartuko ez ote zuten kezka, bizitza ordenatu batetara itzultzea, e.a.). Halako gauak eta halako egunak!

Iritxi zan eguna eta hartu zuen tren. Bere etxe parera heltzean, ai zer nolako poza: Zuhaitz historik gabea zapi zuriz

josita ikustean!

Ipuia, ametsa, politegia...?

Gaur egun bizi garen mundu honetan eta gure herrian, ez ote ditugu zapi zuriz betetako zuhaitz gehiago behar?. Bizi-poza, elkar-laguntza, egizaletasuna, zuzentasuna, barkamena, pakea, maitasuna... ez ote lukete izan behar gure bizitzaren oinarri-oinarrizko jarrerak?

Jar dezagun, beraz, lehenik, zapi zuri bat norbere bizitzaren adarrean, honela sortuko bait ditugu zuriz jantzitako benetako zuhaitzak gure inguruan.

"Bizi-poza, barkamena, bakea, maitasuna... ez ote lukete izan behar gure bizitzaren oinarritzko jarrerak?"

Sor Elisabet Izagirre

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Ilnoa: 79 01 05 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Miguel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Agurtzane Elgoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Imprimegia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.5000 ale Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da

Zer daukazu esateko?



Eider Iturbe
(ikaslea)

Kriston herria da, dena ondo zainduta dago. Baina gazteendako ez dago ezebe, ez daki-gu zer egin. Denbora liberako ez dago aktibitatek antolatuta.



Mari Angeles Martin
(langilea)

Ez dut ulertzen industrialde aurrekoetxeen proiektua orain hogei urte egin bazen, zergatik ez diren etxeak egiten hasten. Zein da arazoa?, Aretxabaletako leku politenetakoa izanda...



Iñaki Arenaza
(langilea)

Aretxabaleta herri jator bat da, eta ondo ikusten dut dagoen bezala. Zerbait aldatu daiteke, noiz behinka adibidez aparkamentu falta dago, baina bestela ez dago problema handirik.



Inaxio Corres
(Langabezia)

Erreztasun piska bat gauzak egiteko askatasun gehiago, egin gura duzun gauza bakoitzeko pega bat jartzen digu udalak. Adibidez kontzertuak kiroletxean, kallean... eta laguntza gehiago.

KARTAK

Komun publikoak, derrigorrezkoak

Umeak zaintzen gabiltzan emakume talde bat gara eta sufritzea tokatzen zaigun arazo bat jakin arazi nahi dugu.

Behin baino gehiagotan kexatu izan gara plaza ondoan kokatuta dauden komunetan, emakumezkoen aldean, bat bakarrik zabalik egoteaz. Haur kopuru handia izaten da plaza inguruan 4,30retatik aurrera eta gehiengoak emakumeen ardurapean

dagoenez egoera txarrean aurkitzen zelako.

Hori gutxi bazen, azken hilabeteetan ezer gabe gabiltza: Komunak, enpresa pribatu baten PINTURA BILTEGI bihurtuta ikusten ditugu. Plazan denetarik ikusten dugu eta ikasten dute haurrek: derrigorrez tabernetara joaten, inguruko edifizio publikoetako komunetara joanez gero atea itxita edo aurpegi txarrak ikusten

eta plaza bazterretan denetarik egiten.

Nahikoa da. Hutsune honekin danok konturatu gara KOMUN PUBLIKOEN BEHARRAZ.

Espero dugu aurrerantzean, eta Udalarari eskatzen diogu aurrerantzean gehiago baloratzea honelako erabaki bat hartzerakoan.

Horrela izan dadila!

Emakume talde bat

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitetzte.



Larrinbe industrialdea laster martxan

Denborak aurrera doaz eta denborarekin batera pertsonak eta inguruak aldatu egiten dira; gure herrian ere azken urteotan aldaketa handiak eman dira eta aldaketa horien beste lekuko bat da Larrinbe industrialdea.

Garai batean Abrasivas Laurak eta Corindon enpresak zeuden lokalak barriztu egin dituzte. Larrinben zegoen fabrika zaharra itxuraldatu egin da, eta laster bertan sei tailer barrizabalduko dira. Hamabost egun barru tailerrok martxan jartzea espero da, azken detai-

leak konponduta gero.

Lehenago fundizioa zegoenez 30.000 W. potentzia behar zuten, oraingo enpresek guztira 13.000 W. baino behar ez dituztenez, Iberdueroren zain daude martxan hasteko.

Larrinbe industrialdea martxan jartzen denean 60 bat lagunek lan egingo dute honako tailer hauetan; Promax, Felix Pagaldai Pentsuak, Dorleta Aroztegia, Ferle Industriak, Amaral Eraikuntzak eta Nekazal makinariaren mantenu eta konponketaren tailerra.

Inguruko baserritarren batzarra

DEGABEL, Deba Garaiko Abelaize Elkarteak, ohizko bilera orokorrerako deialdia egin du. Antzuolako Gurasoen Elkartearen aretoan izango da bilera, apirilak 5ean.

Hauexek dira bertan gure baserritarrek aztertu eta estabaidatuko dituzten puntuak:

- Aurreko ohizko bilkura orokorraren akta irakurri eta bidezkoa bada, onartu.

- 1991ko elkartearen jokaera eta funtzionamenduaren azalpena.

- Joan zen urteko gorabehera ekonomikoaren azalpena.

- Aurten izango diren arazozen berri emango da.

- Elkarteko ordezkari berriak aukeratzeko hautagaien aurkezpena egingo da.

Eta azkenean galderak eta eskaerak egiteko aukera izango da.

Birlandaketa Bainuetxen

Udaberria heldu da, eta eguraldia horretaz konturatu ez bada ere, gure herriko zenbait lagunek lan ederra egin dute Bainuetxe ondoan dagoen Iturriondo izeneko maldan.

Guztira 175 arbola landatu dituzte eta horretaz aparte baita 75 arbusto ere. Bertako gauzek ere inportantzia daukatenez, arbola eta arbusto horietatik 30 espezie autoktonoak edo bertakoak dira. Aipagarriak dira, landatu ziren gorosti zoragarriak.

Hori denori, auzolanean egin da, Ingurugiro Batzordearen iniziatibaz eta Diputazioaren dirulaguntzaz.

Bainuetxen egin dena hasiera besterik ez da, antzeko proiektuekin jarraitzeko asmoa dago, Udalarenak diren lurrak abandonatuetan birlandaketa gehiago egiteko. Jakina, horretarako presupuestorik baldin bada-goto.



Poligono basabe, A-15
Tfnoa: 79 34 28

JAUREGI
OKINDEGIA
(PANADERIA)

otalora, 10

Aretxabaleta



Mitarte, 21, behea

Tfnoa: 79 79 79

ARETXABALETA



Egunkarietako herri kroniken neurketa

Egunkarietako herri kroniketan euskararen presentzia zenbatekoa den jakiteko BEINKEk neurketa bat egin du.

Gure herria nahiko txikia bada ere, berari buruz dexente idazten da, egunkarietako herri kroniketan ia egunero dauka-gu Aretxabaletari buruzko barriren bat. Baina ia egunero heltzen zaigun informazio hori ze hizkuntzatan ete dago? Galdera horri erantzuten dio BEINKEK, eta aldi berean egunkari hauen jokaera agerian uzten du.

Udalak utzitako materialaz, BEINKEk 1991urteari dagozkion datuak atara ditu. Lau egunkari aztertu dira neurketan: Deia, Egin, El Diario Vasco, eta El Correo Español. Datuok benetan esanguratsuak dira. Prentsa eta informazio mailan gure herriaz idazten dena, eta herritarroi heltzen zai-guna oso pobrea da euskararen presentzia aldetik. Ea aurten zela portetan diren. Eskerrak hor dau-dela, euskara hutesaz ataraten diren Aretxagazeta eta Egunkaria.

Bakeari buruzko mahai inguruua

Aurten parrokiak pakearen aldeko zenbait ekintza berezi egin gura ditu. Horretarako, mahai inguru edo eztabaida bat antolatatu du, Martxoak 27rako Udaletxeko pleno aretoan.

Erakunde desberdinetako jendea etorriko da, postura ideologiko desberdinekin.

Partehartzailak honako hauek izango dira: Manos unidas (Inadarkeria armatuaz aparte, indarkeria ekonomiko eta sozialaz berba egingo dute), Denon Artean izeneko taldea, KEM-MOC (Kontzientzia objetoreen mugimendua eta intsumisioa bultzatzen duena), Segurako kristau bat eta Senideak elkarteak.

ikuspegi zabaletik helduko zaio bakearen gaiari. Bost talde hauek lehenengo euren eritziak bost minututan emango dituzte eta gero mahai inguruari hasiera emango zaio.

• Hamabostero bezala, datorren zapatuan ere arratsaldeko 7,30etan preso politikoen aldeko enkartelada egingo da. **Betiko moduan Urbaltz tabernan hasiko da.**

• Iazko ohiturarekin jarraituaz, datorren eguakotxean, hilak 27 Beinkek antolatutako kantu afaria egingo da. **Apuntatu gura duenak, deitu dezala Beinkera. Giro aparta eta umore ona mahaian ere inportanteak direlako, animatu zaitetz euskal kantuak kantatzu ondo pasatzera.**

	GUZTIRA ATARATAKOAK	EUSKARAZ	ERDARAZ
EGIN	134	74 (%55)	60 (%45)
DIARIO VASCO	134	7 (%3,5)	63 (%96,5)
DEIA	218	6 (%2,7)	212 (%97,3)
COORREO	63	0 (0)	63 (%100)
GUZTIRA	617	87 (%14)	530 (%86)




Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

Electricidad
SAGASTA
Elektrizitatea

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

OTALORA, 14
Tfnoa: 79 16 10



DORLAK

DORLA S.A
AREREXBALETA

POLIGONO BASABE, C.O.2.3
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77



Apotzako hirukiak etxean

Aurreko zenbakian hasiera eman genion historia honi eta zenbaki honetan berriak zabaldu gura ditugu. Aurrekoan hiruki baten izena dudan bazegoen ere oraingoan ziurtatu ditzakegu hiruren izenak: Eneko, Joseba eta Mikel.

Aretxagazeta Sarra-txiki baserria izan zen eguakotxean etxera etorri zirenean. Umeak ondo daude, nahiz eta Mlikelek inkubadoran jarraitu. Pisu egokia lortu arte bertan egon beharko du, medikuek diotenez hamabi bat egun barru etxean egongo da.

Amak susto ederra hartu zuen hirukiak izango zituela esan ziotenean. Gainera azken bi hilabeteak ingresatuta

pasatu ditu, hiru umeek asko pisatzen zutelako.

Historia honek anekdotak ere baditu. Eskoriatzako Udalak asistentia bat jarri die, umeak zaintzen laguntzeko, beste bi esku ondo etorriko zaizkie.

Eta kurioa ematen badu ere, Nestle etxeak, mundu guztian famatua den enpresak, urte osorako janaria emango die. Egia esanda hiru aho txiki horiek alimentatzeko primeran etorriko zaizkie.

Maribel Bengoetxea eta Jesus Zubizarretak, hirukiaren gurasoak, pozik hartu dituzte laguntza horiek. Kontuak kontu, mesede ederra egin dio familia honek Leintzko populazioari.

Laster herriko banda

Aretxabaletako kaletan zehar Musika Banda barrero entzun ahal izan dezagun postura gogorra egin dute ikusten denez Udalak eta Leizarra Musika Eskolak. Musikaren ardura Eskolak hartu du, jendea herriak jarriko du, eta dirua, Udalak. Orain arte 700.000 pezeta jarri ditu Udalak, banda honetarako musika tresnak erosteko.

Gazteenak akordetan ez badira ere, gure herrian garai batean banda polita izan zen. Tradizio hori barritu gura dute orain.

Ballet, dantza eta yogarako gela

Ballet, dantza eta yoga praktikatzeko gela bat egokitu du Udalak Otalora 27ko etxean. Denok ulertzeko, kuarter zaharrean. 600.000 pezeta inbertsioa egin du Udalak gela honetan egurrezko tarima jarten. Loramendi dantza taldeak, ballet erakusleek eta azken urtean Aretxabaletan funtzionatzen ari den yoga taldeak erabiriko dute gela barria euren saioetarako.

Expo 92rako tren

Aretxabaletan aspaldian kendu ziguten trenna, baina hala ere Gipuzkoako Diputazioak bitren antolatu ditu Severilla Expo 92 ikustera joateko. Bertan, 14 eta 25 urte bitarteko neska-mutilek daukate andaluzia aldera joateko aukera. Bidaia lau egunetakoa izango da eta bere kostua 23.500 pezetakoa. Gipuzkoako Foru aldundiak 3.500 pezeta pertsonako ematen du, eta Aretxabaletako Udalak beste hainbeste. Aretxabaletatik gazte bi joan daitezke. Interesatuok, eman izena Udaletxeko bulegoetan. Badaezpada extintorea eraman.

Leku barriak zakarrendako

Albiste honi buruzko informazioa etxeetara bialdu bada ere, ondo legoke akordatu eragitea. Herrian zehar aldatu egin dira zakarrak edo zaborrak uzteko leku batzuk. Horretarako Udalak mapa bana bialdu zuen herritarren buzoietara. Diotenez, batzuk ez dituzte leku barriak ikasi, eta beste batzuk ez dituzte ikasi gura. Ikasi beharko, herria txukun eukitzekotan.



Ortzadar, asteburuetan umeak marietan

Beinkek bultzatuta, orain bi urte haurrekin eskolatik kanpo euskaraz ondo pasetako, helburuaz sortu zen. Denbora horretan herriko neska-mutil asko pasatu dira bertatik aktibitateak eginez: irteerak, eskulanak, taldeko lanak...

Auten 200 bat neska mutil daude Ortzadar

taldean, 22 monitorerakin banatuta, 10-12ko taldeak osatuz. Talde hauek homogeneoak dira, haurrek hobeto elkar ezauketako. Zapatu arratsaldero elkartzen dira plazan, monitorea bakoitza bere taldearekin, programaturako aktibitateak aurrera eramateko.

Monitoreak

22 monitorea daroate Ortzadar taldea aurrera. Neska-mutil gazte hauen edadea 17-20 urtebitartekoa da. Astean zehar elkartzen dira asteburuetarako ekintza guztiak prestatzeko. Eurek erosten dituzte beharrezko materiala, tal-

deen antolaketa egiten dute....

Arazoak

Orain arte diru aldeetik justu ibili dira, Udalaren dirua orain heldu zaie eta oraindik Diputazioaren diruaren zain daude.

Beste arazoetako bat, interesik jartzen ez duten haurrena da. Denbora luzea ematen dute aktibitateak prestatzen eta gero haurrek ez dutesperero moduan erantzuten. Badira pasota samarrak direnak ere. Arazo horri lehenbailen heldu gura diote konpondu ahal izateko.

Ekintzak

Ortzadar taldearen aurtengo ekintza nagusiak irteerak izango dira: Maieatzean Kanpetzora eta Ekainean Ozaetara joango dira. Bestela ekintza tipikoak egingo dituzte: irrati saioak, eskulanak, aldizkariak... Horretaz aparte, badago nobedadea: hemendik aurrera domeketan mendira joaten hasiko dira.

NOVEDADES
FELI
MODAN DAGOEN GUZTIA!
Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24

RKLU
INDUSTRIA
ORNIKUNTZAK
URKULU, S.A
Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66


OYAR
Zaraya, 4
Tfnoa: 79 15 70

Autoservicio
ANGELINES

Mitarte, 16
Tfnoa: 79 61 42

Aretxabaletan badago familia bat etxean lo bakarrik egiten duena. Mardotarrak, Kiroletxeko maizterrak. Familia honen barri erakusteko Blanka eta Josebarekin egon gara berbetan.

- **Zela sartu zineten Kiroletxean?**
- **Joseba:** Ni eskola aldetik ez nenenbilen ondo. Familiari proposamen hau egin ziguten eta zela aita bakarrik zebilen lanean, hartu egin genuen. Familia



"Ohea bakarrik falta zaigu Kiroletxean"

osoak egiten genuen lan hasieran. Guk banaketa egin genuen, anaia bat mantenimentuan, neu harreran, aita eta ama tabernan. Gero Julenek beste lan bat topatu zuen. Eta orain ni nago harrera eta mantenimentuan (aitak lagunduta) eta ama tabernan.

- **Baina ia familia osoa hemen dago...**
- Bai, adibidez garbitasuna denon artean egiten dugu.
- **Familiarendako aldaketa haundia izango zen.**
- Bai. Gu etxean Domeka ilunkaran sartzen gara. Beste dena, hemen. Sarri-

tan esaten dugu, oheak gimnasioan jartzea bakarrik falta zaigula. Lo bakarrik egiten dugu etxean.

- **Tensio haundiko lana da?**
- Momentuak daude. Hasieraren bat edo beste izaten da, nik edukitako akats bategatik ordu berean kantxan bi talde elkartzean adibidez. Baina une trankilak be bai.
- **Ordu gehiegi sartzen dituzula eta, kejarik ba daukazu?**
- Bueno egia esanda ordu asko dira, beste lan normal batean baino gehiago. Goizeko 8etatik gabeko 10 t'erdia arte bai. Beste

lanik ez dut probatu. Sekula ez naiz egon katai batean eta ezin dut konparatu. Lagunak adibidez, 8 ordu eginda gero libre daude. Nik orain libratzen dut egunean ordu pare bat, baina lotuta zaude.

- **Zein da zure lanaren alderik gogorrena?**
- Hainbeste ordu egin eta gero azken orduko garbiketa da gehien kostetan zaidana. Oso luzea egiten da.
- **Eta alderik onena?**
- Hau lasaitasun hau, adibidez.

- **Arkitektoa izan ezkeror aldatuko zenuke Kiroletxean?**
- Haunditu egingo nuke. Dagoena justu-justu sartuta dago. Beste sauna bat behitzat jarriko nuke, sauna haundi bat. Beste gauza asko be bai. Squasha betirako konponduko nuke, beti hormak konponketan ibili barik.
- **Aspaldi honetan oso kirolzale zabilte.**
- Orain urtebete pasatxo Atletismoan hasi nintzen. Behobia-Donostia karrera egiteko preparatu eta bukatu nuela ikustean jarraitzeko gogoia sortu zitzaidan. Almeneko Atletismo taldekoekin nabil, egunero bi ordu entrenetan.
- **Zure lana dela ta, herrian guztiek ezagutuko zaituzte...**
- Bai, jende askok. Eta zuk ere jendea ezauketan duzu. Hori lan honen gauza on bat da.

"Pozik gaude geure lanarekin"

Blanka da Mardotarren eta Kiroletxeko etxe-koandrea. Geldik egoten ez dakien emakumea, eta Joseba-ekin batera Kiroletxeaz arduratzen dena.

• Zergatik hartu zenuten kiroletxea?

• **Blanka:** Guk hartu genuen kiroletxea, lanpostu bat behar genuelako.

• **Gustora zabiltzate orain?**

• Bai, oso pozik gaude. Askotan lan asko egon arren, denon artean lagunduz aurrera ateratzen dugu.

• **Zenbat urte daroazue hemen?**

• Kiroletxea egin zen lehenengo urteetatik.

• **Zu tabernaz arduratzen zara...**

• Tabernaz, garbitasunaz eta beharrezkoa denaz.

• **Familia guztiaren artean daukazue kiroletxea?**

• Fijo Joseba eta ni gaude. Baina denon artean egiten ditugu gauzak, kiroletxeko lana ez da lan segurua eta fijo bat egitea, urteten duena egiten da.

• **Zeordutegidaukazue?**

• Goizeko 8etan etortzen gara eta gabeko 11,30ak arte egoten gara gutxi gora behera.

• **Laneko gauza on bat?**

• Aktibitate asko eta desberdinak dauzkala, burua betik zerbaitetan lotua. Hori niretzat oso garrantzitsua da.

• **Lanaren defektuak?**

• Ordu asko egon behar garela kiroletxean. Lagunak kalean dauden bitartean nik kiroletxean egon behar dut. Horregatik ez aspertzeko ordu batzutan eskulanak egiten ditut, burua beste gauza batzutan eukitzeko.

• **Kiroletxea hartu zenuenetik orainarte egon diren aldaketak?**

• Haundiak. Hasieran frontoia gimnasio bat zen. Lekua txarto aprobetxatua zegoen. Bigarren obretan udalak eta Diputazioak haunditze bat pentsatu zuten egitea, eta orduan gimnasioa lekuz aldatu zuten, squasheko pista berriak eta piszina eraiki zituzten. Baina benetan arrakasta, rokodromoak, izan zuen. Gauza orijinala izan zen, atenzioa deitu zuten, kanpotik jende ugari etortzen da. Jende gehiena atxalbatarra da, baina ingurutik ere joera haundia dago.

• **Badakigu umore onekoa zarela...**

• Jenio bizia daukat, baina gauzak umore onean egi-



Genio bizia daukat, baina gauzak umore onean egiten ditut

ten ditut. Hemengo lana pozik hartu behar da, lan asko dago hemen eta.

• **Igeri jakingo duzu, ezta?**

• Bai, igeri jaikin badakit, baina nahiz eta piszina aldamenean edo esateko etxean bertan euki, ez naiz askotan joaten. Gehienbat garbitzen joaten naiz.

• **Noiztik daukazu landareetarako afizioa?**

• Betidanik, txikitatik etxean landareekin ibiltzen nintzen. Orain, hemen (kiroletxeko lehen pisuan) dena landarez beterik daukat. Barukolandareak dira gehienak.

• **Esku ona gauzak egiteko?**

• Ezin dut ezer egin gabe egon. Horregatik nabil beti hau edo bestea egiten, gelditu barik. Burua beti tapizetan, eskulanetan edo horrelako gauzetan daukat.

John Willian Nelson

Irlandatik atxabaltara

- **Edadea**
- 38 urte
- **Non jaio zinen?**
- Rugby (Inglateran) jaio nintzen, baina urte batekin Ipar Irlandara bueltatu zen familia, Larne herrira.
- **Zenbat urterekin etorri zinen?**
- 23 urterekin.
- **Ze arrazoiengatik?**
- Nire emaztearekin ezkondu nintzelako eta irakaskuntza lan egiteko.
- **Zein izan zen zure lehenengo etxebizitza?**
- Hasieran Lasartera ezkondu nintzen eta gero emazteak Coprecin lan egiten zuelako Aretxabaletara etorri ginen, baina Aretxabaletan etxebizitzarik ez zegoelako sei hilabetez Eskoriatzan egon ginen, gero Aretxabaletan Blzkaia kalean.
- **Aretxabaletak eman zizun lehenengo inpresioa?**
- kale bat zen orduan, trafiko ugari eta oso txikia. Jendeak arraro begiratzen zidan, kanpotar sentitu nintzen.
- **Hasieran zer izan zen gehien kostatu zitzazuna?**



- jatoduetan ardoa edatea eta txorisua jatea. Orain gehien gustatzen zaizkidan gauzak.
- **Euskarak (edo hemengo euskarak) ze inpresio egin zizun?**
- Lehen euskera ez zen asko entzuten, guk etxean ingelesa egiten genuen eta euskera bakarrik emaztearen etxean entzuten nuen. Nahiko hizkuntza gaxa iruditzi zitzaidan, gainera kalean ez zen asko ent-

zuten eta ez zen beharrezkoa.

• Herriminik bai?

- Inglaterako lagunekin giro diferentea zen. Hasieran etorri nintzenean ez nuen erdera ulertzen eta niretzat oso garrantzitsua zen periodiko inglesa. Munduan gertatzen zenaz ez nintzen enteratzen. Niretzat oso inportantea zen hilabete behin periodiko inglesa erostera Donostia-ra joatea.

• Zer da Aretxabaletatik gehien gustetan zaizuna?

• Herri lasaia dela, haurrak askatasunez hazi daitezke. Nire semeek gura dutena egin dezakete hemen, igual hemendik urte batzutura gehiago beharko dute, baina Aretxabaleta famili leku ona da.

• Ze alde dago zuk ezagututako Aretxabaleta eta oraingo artean?

• Herriaren antolaketa, jardinak, arbolak, lehen moduan orain ez dago kale bat bakarrik. Zerbitzuak asko hobetu dira, hasieran ez zegoen ezer.

• Ze alde dago zure herriko usuario eta Aretxabaletako usuarioen artean?

• Orduategia, askotan gauetan zerbait erosi nahi nuenean kalera iritetzen nuen, zerbait zabalik aurkituko nuelakoan, eta beste askotan ez nuenean ezer nahi dena zabalik. Hemen bizitza gauzez egiten da. Zubi bat egoten denean hemen jendea mendira edo beste leku batera joaten da, han jendea oporretan bakarrik mugitzen da.

• Zein da gehien harritu zaituen ohitura?


• Kalean ibiltzeko dagoen ohitura eta mahai gainean jartzen duten janari mordoak.

• Zeure burua atxabaltartzat daukazu?

• Bai, guztiz.

AMANTALAZ

Gaurko gure sukaldaria: Jesus Mari Errasti, "Sardan"



"Sardan" berakatz zopa

Lau pertsonentzako osagaiak:

- 2 porru
- 2 piper txorizéro
- 3 berakatz ale
- Tomate heldu bat
- Zopako pistola bat
- 2 arraultz egosi
- Urdaiazpiko 100gr.

Zelan egin:

Litro terdi ur ipini barazki guztiekin: eta ollan utzi ordu erdiz.

Egosita gero pasapuresetik pasatu.

Pistola zatitu zati txikitan eta urdaiazpikoarekin ipini buztinezko lapikoan olioaz. Gero barazki salda bota eta ordu laurdenez irakiten utzi. Akaberan arraultza egosiak zatituta bota.

TXISTEAK

" Berori "

Abade jaunak deitu zion dotrinan zebilen ume baten gurasoari eta esan zion:

- Hi, Paulo, hire semeari berbetarako edukazino piskat emon behar dotsak; ze, hikan tratetan najok eta. Badakik hori ez dena itxura besteen aurrerako be.

- Lelo madarikatua. Horrenbeste jakin behar zuen ba. Hikan tratatu abade jaunari? En fin, lotsabako xamarra be bada eta; baina, neuk erakutsiko diot hari, gizonak eta batez be abade jaunak zelan tratatu behar diren.

Ettxera joan zen Paulo eta semeari esaten dio:

- Hi, baina, hik ez dakik abade jaunari "berori" deitu behar zaiona ala?

- Izena aldatu diote ala?


- Ez!, ze izena aldatu ta ze otxo-kuarto. Izena aldatu diotelako ez; abadeari errespeturako beti holaxen deitu behar zaiolako.

Ondoren, eman zion mila esplikazio, "berorika" zelan egin behar zen konprenditu zezan.

Hurrengo egunean joan zen dotrinara eta soltatu zion abadeari "berorikada" batzuk. Abadea poztu zen, gurasoek bere esana aintzakotzat hartu zutela eta mutilaren edukazioa leundu zela pentsaturik. Hala ere, bere artean pentsatzen zuen zuka egingo balio ere nahikoa litzatekela. Eta modu onean preguntatu zion:

- Nork esan deusk "berori" egin behar zaidala?

- Ba, aitak esan justek hiri "berori" esateko.





Atxabaltako bainuetxerik famatuenak, Ibarakoak, 1843. urtean zabaldu zituen ateak Madriletik Frantziara zihoan bidearen ondoan, urats iturri baten gainean. Ibarra moduko

bainuetxeek XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran ezagutu zituzten euren sasoirik onenak, garai hartako medikuek pertsonen osasuna uretan, airean eta argian zetzala zioten

eta. Europatik etorritako moda hau laster zabaldu zen Euskal Herrian eta bainuetxe ugari sortu ziren: Alzolan, Zestoa, Eskoriatzan, Gesalibarren, eta... Atxabaltan.

Ibarrakobainuetxeak

izugarritzko arrakasta izan zuen. Ordu hartan, iturriari 33 koartilo urats zerion eta bainuetxean 16 bainugela zeuden, zink eta marmolezko bainerekin. Bainugeletan sartu aurretik, bezeroak argazkian azaltzen den aretoan egoten ziren. Bezeroak, leku guztietatik etortzen ziren, baina famatuenak madrildarrak ziren. Horrexegatik Atxabaltari "Madril chiquito" deitzen zioten eta bainuetxe ondoan zegoen etxeguneari "Portasol" izena jarri zioten bertakoek, Madrildo "Puerta del Sol" famatua gogoratzu.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian agertzen den kanpaia?
Pista: Urkulutik gertu dago.




Aurreko lehiaketaren irabazlea XABIN ARRIOLA izan zen. Zorionak!

Erantzuna:

- Izen-abizenak:
- Helbidea:
- Tfnoa:

Amaia Gaztañaga, hamabost urte besterik ez daukan korrikalaria. Almen-U.D.A kirol elkartean dabil, marka onak eginez. 11 urterekin hasi zen eta betidanik gustatu zaio atletismoa. "Marianista Olinpiadetara joateko apuntatu nintzen eta jarraitu egin dut".

Orain arte krosean eta pistan ibili da, baina berari gehien krosa gustatzen zaio. "Nahiago dut menditik ibili, lokatz artean". Krosean, denboraldiko azkenengo lasterketa irabazi zuen, Eibarko "Bolunburu" saria 2.400mtan 8.56ko denbora eginez, eta



Amaia Gaztañaga, korrekaminos gaztea

pistan Euskadiko hirugarrena izan da.

Orain Apirilak 4ean Gipuzkoako txapelketan parte hartuko du 600 eta 1.000mtan. "600m-tan entrenadoreak bastante marka ona egingo dudala esaten dit". Gipuzkoako

txapelketa eta gero Euskadiko txapelketara joango da minima egiten badu. "Orain arte beti egin dut minima eta Euskadiko txapelketa gehienetan egon naiz".

Amaiak egunero ordu bat eta laurden entrena-

tzen du eta domeketan ordu bi.

Bere entrenatzaileak Pedro Azkargortak asko laguntzen dio, "beragatik ez balitz ez nuke hainbeste lasterketa irabaziko, asko laguntzen dit".

U.D.Ako mutilak partido garrantzitsua daukate Domekan Anaitasunaren kontra. Aurreko domekan galdu eta gero beharrezkoa dute partidu hau irabaztea, atzean geratu gura ez badute. Ea oraingoan irabazle bueltatzen diren

21 urtetik beherako UDA taldea promozioa jokaketako sailkatu da, lehelengo erregionalera igoteko. Lehelengo fasea bukaketako azkenengo partidua datorren zapatuan Mundaroren kontra izango da, Aretxabaletako Ibarren.

URRETXXO

Pinturak, papalak, moketak.

Gorbea 2
Tfnoa: 79 04 16
Aretxabaleta

ohialak

Gorbea, 4
Tlfoa: 798736



Sport SASIAIN

Zaraia, 4
Tfnoa: 79 77 63
Aretxabaleta

27

EGUAKOTXA

• Zaraia mendi taldearen eskutik " Mendiar Buruzko Mintegia "

• Mahai inguru " Aretxabaletako arazoei buruz ", parrokian.

• Kantu afaria, Beinkek antolatua. Afaria Murualde Elkartearen izango da eta herriko bertsoariak parte hartuko dute. Izenak emateko Beinken.

• Aretxabaletako gaztetxean, lehen kuartela zegoen etxeko atzekaldeko partean, gaueko 11etan "The Filling Rebolos" Portugaleteko taldeak bere kontzertu entzungarria eskeiniko die musika zaratatsuen zaleei.

28

ZAPATUA

• Zinea: "Tacones Lejanos" gaueko 10etan.

29

DOMEKA

• Zaraia mendi taldearen irteera: Izpizte.

• Goizeko 8etan Murruxiko mendizale elkartearen irteera: Gipuzkoako itzuliaren 7. etapa: Arrizulegi - Hondarribia.

• Zikloturista taldearen irteera: Gipuzkoako itzuliaren 7. etapa: Aretxabaleta - Durana -

Gamarra Arrazua (64Km).

• Zinea: "El gran halcòn" 4,30etan eta "Tacones Lejanos" 7etan.

4

ZAPATUA

• Zinea: "Pensamientos Mortales" gaueko 10etan.

5

DOMEKA

• Goizeko 8etan Murruxiko Mendizale taldearen irteera: Eskola kiroletako Martxa regulatua DEBAN.

• Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Arlabàn - Urbina - Gasteiz - Argomaiz - Ozaeta - Aretxabaleta (70Km).

• Futbol partidua: U.D.A - Eskoriatza K.E.



• Zinea: 4,30etan eta 7etan "Thelma Louis" filmea.

• Emakumezkoen futbol partidua: U.D.A - Urretxu.

ARETXAZOKA

Etxebizitzak

• Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dabo.

Dei egin 81 66 24 tfnoa.

• Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Aretxabalean. Tfnoa: 77 04 58

• Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21

Lana

• Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erderaz eta baita euskeraz edo ingelesez ere) Tfnoa: 79 62 89

• Aretxabaletan Dis-Tel ohialdendak esperientziadun jostun bat behar du. Dei egin

Salerosketak

• Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte t'ardi ditu eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94

• Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnoa.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT
 
GARAGE
OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE SERBITZUAN

 MANTEKA
 ANAIK


BASABE
JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 79 31 84

GARAGE
" EDER "
 Karrozeria
 mekanikoa

 IBARRA S/N
 Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
 ALTZARIAK
 DISENUA
 APAINKETA
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
 DURANA ETA ARALAR KALEAN
 Tfno: 79 16 05

 **EGVZKIGRAF**
 INPRIMATEGIA
 LIBURUAK • ALDIZKARIAK • LIBURUSKAK
 MERKATARITZA INPRESOAK
 KATALOGOAK • BULEGO MATERIALA
 Basabe Poligonoa, 4-2-7

NERIAN
 Loradenda

 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66

KIKKOR
 AKEITEGIA

 MITARTE, 3
 Tfnoa: 77 io 81

OILASKO - URDAITEGI - IZOSKIAK
IÑAKI
 CHARCUTERIA - POLLERIA - CONGELADOS
 Gipuzkoako Enparantza, 1 ARETXABALETA

Arxhitegi, S.L.
PASTELERIA,
HELADERIA ITALIANA

 Otalora 10
 Tfnoa: 79 93 58

IBARRA ESTANKOA
 TABAKO, IKAS MATERIALA eta SERGA
 IMPRIMAKIEN SALMENTA

 Bizkaia, 3
 TFNOA: 79 23 77
ARETXABALETA


 Aretxabaletako
 Industrialdea, S.A
 Poligono basabe B-o
 Tfnoa: 79 62 80

Optica

 Loramendi, 10
 Tfnoa: 79 98 21

KURTZEBARRI

ATXABALTAKO ESKOLA



HEZKUNTZ EREDUAK ETA METODOLOGIA

- B eredia MURGILTZE planean, euskarari tratamendu berezi bat emanez.
- D eredia O.H.O. osoan.
- Ingelesa 3. mailatik aurrera.
- Hizkuntzaren funtzionalitatean oinarrituriko idatz-irakurketarako metodologia.
- Behar berezidun ikasleentzat laguntza.
- Geletan haur kapuru egokia.

MATRIKULA EPEA: Martxoak 23tik Apirilak 14arte
Arratsaldeko 6,30arte

Edozein informazio Eskolan bertan izango duzue
Tfnoa. 79 00 49

SANTA RITA IKASTETXEA



• Ikatetxeko kontseiluak honako hau adieraten du:

1992 - 93 ikasturterako ikasleen matrikulazio epea martxoaren 27-tik apirilaren 6-ra arte izango da, biak barne.

• Unskripsio horriak jasotzeko ordutegia:

Arratsaldeko 4,30-tatik 6-etara.

OHARRA: Herritar guztiok gonbidatuta zaudete ikastetxeko obra berriak ikustera, aipaturiko egun eta orduetan